

IUFALA!! PRO

IUFALA!! ARTISTA ETA IRAKASLEENTZAKO



Iufala!! Egitarauaren arrakasta antzerkia da, antzerki samurra, oinarrizkoa, antzerkia den bezalakoa. Inor gutxietsi gabe, antzerkia ez da zirkoa, dantza, magia, ... diziplina hauek lantze ditugunean zailtasunak bere balorea hartzen du. Antzerkian aldiz zailtasuna ez da balore gehigarria, antzerkian diziplina irudimenean barneratzea da eta burura datorrena ikusleei erakustea, baldintza bakarra ondo pasatzea. Orain, egia da, askotan beste diziplina artistikoen beharra izaten dugula, gure iritsiz antzerkia arte eta diziplina artistiko guztiak batzen dituen topagunea da.

Antzerkia irakasterakoan ezaugarri asko izan behar dira kontuan eta horrek transmisioa zaildu egiten du. Iufala!! Egitarauaren prozesuan antzerkiaren ezaugarri bakoitzaren garrantzia ondo neurtzeko, bi isuri sortu dira: Antzezlan eta filosofia, bata bestea elikatzen du eta diziplina askoz samurrago barneratzen da. Iufala!!Pro antzerkia maitatzeko sortu da, antzerkiaren onurak ezagutu, erreminta bilakatu eta bizipoza hedatzeko.

Mamia:

Irudimenean sartu eta leku horretatik bururatzen dena erakustea, beraz ondo pasatzea nahi badugu; taldearen konfiantzan eta akatsik ez egotean sinetsi behar da. Alde batetik talde konfiantza, lan-taldearen aurrean beldur gabe aurkezteko, eta bestetik taldekideen arteko konfiantzan, oholztan edozer proposamenei ateak irekitzeko.

Bigarren ezaugarria akatsik ez dagoela sinestea da; bizitza osoan zehar irakaskuntza ongiaren eta gaizkiaren arteko bereizketan oinarritu da, eta sineste hori alde batera uztea funtsezkoa da: Irudimenaz lan egiten dugunean, inork ezin du aurkeztu dena epaitu, irudimenetik datorrena legitimoa, pertsonala eta askea da. **Iufala!! Egitarauaren** isuri filosofikoak asko laguntzen die ikasleei bizi duten adinaren

momentuan zentratzen. Aurrera begira, LH 6. mailan txotxongiloekin, pertsonen arteko harremanei ematen diegu garrantzi handiagoa, elkar zaintzearen altzorra transmititzen da eta **Baliatu Egitaraua** aldiz, berriro ere pertsonara bueltatu eta nerabezaroa bertan dutela kontuan izanik, antzerkiaren bidez haien beldurrak eta kezkek normalizatzen dira.

Iufala!! Pro bi isuri horiek transmititzeko ariketetan oinarritzen da, hor baitago antzerkia bere osotasunean ulertzeko giltza. Ondoren, Apropoxek LH 5. eta 6. mailan eta DBH 1., 2. mailan antzerkiarekin egiten duen ibilaldia azaltzen da. Prozesu osoan zehar ikasleekin egiten diren ariketak berreginez azaltzen da teoria, gorputzetik arimara eta arimatik burura, antzerkiaren bi isurien bizipenaz partaide guztiak ahaldunduz.

Baliabideak eta Eskakizunak:

- **Iufala!!Pro egitaraua** profesionalentzat sortu da, bai pedagogiara pasatzea nahi duten artistentzako eta antzerkiaren magia ezagutzea nahi duten irakasleentzako.
- 6 < 16 partaide.
- Partaideek arropa komodoa ekartzea komeni da, ariketak apropos egin ahal izateko.
- Espazioa garbia aharik eta zutabe eta altzari gutxien, zurezko lurra edota esterilekin hornitua eta 2m² pertsonako. Aproposena oholtza.
- Partaideak jolasteko, elkartzeko eta antzezteko gogoia ekarri behar dute.

Onurak:

- Bizi-poza. Hainbatetan antzerkiak edota pedagogiak eman dituzten beldurrak uxatzen dira. Antzerkiak dituen ezaugarriak ezagutze hutsak, bizitzako onurak goratzen ditu.
- Erreminta sorta. Alor filosofikoa jasotzean ariketa sorta galanta eramaten da, ariketek antzerkirako eta era berean, bizitzarako irakaskuntzak daukate eta ikasleei delikatuak diren gai asko azaltzeko paregabeak dira.
- Antzerkia era samur baten irakasteko ahalmena. Antzerki irakasle batek ondo pasatu behar du eta giltza bi isurien harremanetan eta taldearen energian sinestea da. Soilik antzezlan paregabe bat egiteak, ez du batere laguntzen misio honen lorpenean.





Antolaketa:

- Egitaraua eta jarduna, talde bakoitzaren idiosinkrasia kontuan hartuta eratzen da.
- 15 orduko prozesua da.
- Saio bakoitzaren luzapena, ordutegia eta egutegia antolatzaileekin adosten da.

Egitarauaren bermatzea:

- Iurgi Etxebarriak 20 urte egin ditu oholtzatik oholtzara Kukubiltxo antzerki taldearekin.
- 10 urte ikastetxeetako esperientzia aberastuz.
- Iufala!! Pro opari bat da, maitasun osoz antzerkia eta bere ezaugarriak mundura zabaltzeko asmoz.
- EHUKo Udako ikastaroak bermatuta.
- HikHasiko Udako topaketek bermatua.

Materiala:

- Apropox arduratzen da behar den material guztia ekartzeaz.

Zuen inguruan, antzerkigintza curriculum barrua txertatu behar dela uste baduzue jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar ditugun ikasgaiei buruz hitz egiten ari gara.